



XABIER TXO

Bizkaieraz

LOPEZ-MENDIZABAL'dar IXAKA'k

XABIERTXO

Umiei euskeraz irakurten erakusteko idaztia

Bizkaieraz:

AITA ONAINDIA'k

BEAR DIRAN BAIMENAKAZ

Núm. de Registro: 9.182-65
Depósito legal: BI 2.113-1965

GRAFICAS BILBAO — BILBAO



Jaungoikoa

Jaungoikoa da gauza guztien egillea.

Berak egin dauz Ludia, Eguzkia, Illargia eta izar guztiak.

Berak egiñak dira Ludi ontako lur, ibai, mendi, itxaso, bedar, zugatz, txori, abere ta ikusten dogun guztia.

Berak egin gaitu gu bere Onak izan gaitezan, ta gero, il ondoren, betiko zoriona izan dagigun, egin gaitu Jaungoikoak.

Berari zor dautsogu bizia ta dogun guztia.

Jainkoa biotzez maite izan bear dogu.

Xabierfxo

Emen agiri dan mutiltxo au Xabiartxo da.

—Egun on, amatxo! Egun on, aita!

—Egun on, Xabiartxo!

Ogetik jagikera egun onak
emon bear dira.



Aita ta ama asko tviaite dauz
Xabiartxo'k.

Xabiartxo oso ona da. Bere
arriba Iziartxo'k asko maite
dau.

Seme ona, gurasoen poza iza-
ten da.

Ume onak ez dira bein be ai-
karren artean asarratzen.

Jainkoak ez dau nai iñori kal-
te egiterik.

Guztiok anaiak gara ta guztiok alkar maite izatea nai
dau Jaungoikoak.

Iziarixo

Emen aurrean daukazuen au Iziartxo da.

Bere neba Xabiartxo'k lez, jagi ta bereala Jaungoikoa-
ri eskerrak emoteko,
Aita gurea eta Agur Mi-
ren esango dauz.

Oeratzean be beti
egiten dau otoi.

Lo dagoanean zaindu
dagiala, eskatzen dau-
tso Jainkoari.

Eta etxeko guztiai
osasuna einon dagioela.



Iziartxo oso biotz onekoa da. Ixilla, zintzoa ta garbia.
Bere gurasoak asko msite dabe. Bere amari etxea apain-
tzen be laguntzen dautso.

Ez dau bein be guzurrik esaten.

Ez da bein be guzurrik esan bear.

Garhiíasuna

Xabiertxo'k ikastolara joan baiño lenago arpegia eta eskuak urez ondo garbitzen dauz; baita ulea orraztu ta jantziari autsa kendu be.

Bazkaldu baiño len eskuak, eta bazkal-ondoan aboa, urez garbitzen dauz. Ortz eta agiñak sendoak izan eta luzaroan irauteko, aboa garbitzea dala onena esaten dautso amak.

Garbitasuna osasuna da. Izan gaitezan garbiak.

Ikasiólara

Xabiertxo'k, ikastolara joan baiño len, bere aita ta amari agur egiten dautse, eta bere arreba Iziartxo'gaz etxetik urteten da.

Bidean ez dira iñun gelditzen.

Ikastolara joan barik bidean lagun gaiztoakaz batuten danak, ez dau bein be gauza onik ikasiko.

Xabiertxo'k egun-onak emoten dautsoz Irakasleari ta onek esandako guztia ondo entzuten dau. Onela laster izango da Xabiertxo mutil guztietan geien dakiana.

Ikaslolako aíean

Ikastolako atean bere lagun bat aurkitzen dau.

—Nora oa?

—Ikastolara.

—Gaioazak alkarregaz pelotan jolastera.

—Ez, ikastolara joan nai yoat. Joaten ez ba'gaituk ez
yoagi/ ezer ikasiko.

Xabiertxo'k ikasteko gogoa dau.

Xabiertxo mutil on bat izango da.

Irakuríea bearra da



Xabiertxo'k ikasi dau irakurten.

Martin'ek, alperra dalako, ez dau irakurten ikasi nai.

Beste lagun guztiak bereala ikasi eben, eta gauza po-

lítak irakurten ebezan: Manu Sorgin ta Baso-Jaunaren edestiak. Eta pozez iñarduen areik irakurten.

Martin, barriz, beti aspertua egoten zan.

—Ik be ikasi egik, eta gauza politak jakingo dituk —esan eutson Xabier'ek.

Eta Martin'ek irakurten ikasi eban. Ez yako, ez, damutu.

Ezjakiña errukarri da.

Gizabidea

Gizabideak erakusten dausku zer eratan ibilli bear dogun gizartean.

Umeak, elizan dagoanean, ez dau ibilli bear batetik bestera, itz egiten eta atzera begira. Jainkoaren etxean dago ta ixil ta apal egon bear dau.

Etxean eta ikastolan be istillu barik egon ta ibilli bear leuke. Ume txarto eziak beti izketan (berbetan) eta beti deadarka ibiltan dira.

Maian ezagutzen da ondoen, umea ondo ezia ta azia dan ala ez. Agintzen dautsoen tokian jarriko da eta ez da jaten asiko besteak asi artean. Aboan jana daukanean ez dau urik artuko, eta edan-aurretik eta atzetik ezpanak ezpain-zapiz garbituko dauz.

Ume ondo ezia, nunai ondo ikusia izango da.

Gizona

Gizona Jainkoak lur pizka batez egin eban.

**Eta bere antzera egin ebalako gizonaren soiña arri-
garria ba'da, bere adimena oraindik be arrigarriagoa da.**

Onetsi dagigun Jaungoikoa, sortu gaitulako,

Giza-soiña

**Gizonaren soiñak iru zati dauz: Burua, Soin-enborra
eta Soin-adarrak,**

**Buruan doguz begiak, belarriak eta surra: begiak,
gauzak ikusteko; belarriak, otsak entzuteko; eta surra,
usaifia artzeko.**

**Aboan doguz ortzak eta agiñak eta miña: ortzak eta
agiñak, janariak birrintzeko, eta miña berba egiteko.**


Buruan doguz garunak be.

Burua da gure soiñaren zatirik nagusiena.

Soin-enhorra

Soin-enborrak zati bi ditu: bularra ta sabela.

Bularrean aldebitara birikiak **doguz** Onein bidez ar-nasa artzen dogu.



Birikien artean biotza dago. Biotzak ibil-erazten dau gure zane-tan odola, eta gelditu barik beti lanean diar-du, gu bizi gaitezana.

Sabelean, urdailla, gi-bela, guntzurrunak **eta** esteak **doguz**.

Soiña zutik egon de-din, bizkar-azurra **da** atzean.

Urdaillean, batez be, janariak zetzen dira.

Azteko jan egin bear da.

Baiña geiegi jatea kaltegarri da.

Soin-adarrak

Soiñeko goikaldean besoak doguz. Beso bakoitzak zati oneik dilu: sorbalda, besondoa, besogaiña, eskumuturra ta eskua.

Esku bakoitzean bost atz doguz.


Azpiko soin-adar bakoitzean, istarra, belauna, berna, orkatiila eta oiñak daukaguz.

Eskuak, gauzak artzeko dira, eta oiñak, zutunik egon eta ibilteko.

Ikusmena

Begien bitartez ikusi egiten dogu.

Begiak dbguzalako ikusten doguz gure aita, gure ama, gure anaiak, gure arrebak: ikusten doguz baita mendiak be eta zelaiak, itxasoa, eguzkia eta izarrak.



Begiak esaten dauskue gauzak zuriak, baltzak, urdiñak ala gorriak diran; baita gauza orreik urrun ala bertan dagozan be.

Betazalak begiak estaltzeko doguz, eta betazalen ertzetan betuleak dagoz.

Itxu gaixoak errukarrí dira. Betiko gabeen bizi dira. Euren erruki izan dagigun.

Enízumena



Belarrien bidez entzuten doguz itzak, oiuaak eta deadar ta karraxiak. Entzuten clogun guztiari otsa deritxogu.

Belarriak esaten dauskue zeintzuk diran ots atsegiñak eta zeintzuk, ots atsekabeak.

Ondo entzuten ez ba'dogu, ezin geinke gauzen barri zuzsn jakin. Ondo entzuteko buruak be ernai egon bear dau.

Umeak burua ernai eukiten ez ba'dabe, ez dabez irakaslearen erakuspenak entzungo, eta onela ez dabe ezer be ikasiko.

Entzun ondo, ume maiteok.

Usainmena

Sunaren bidez artzen doguz usaiñak.



Sagarraren eta lore askoen usain gozoak atsegindu egiten gaitu.

Txakurrak urrunetik asmetan dau bere nagusia.

Surrak bereala esaten dausku aize kaltegarria nun dagoan.

Usain txarreko aizea osasunarentzat kaltegarri da.

Gozamena



Aboaz, eta batez be ao-sabaiaren bidez, artzen dogu gauzen gozoa.

Sagar bat ikusi geinke, ta bere usaiña artu be bai, baiña aren gozoa artzeko bere ataltxo bat beintzat aboan sariu bear dogu.

Eiztia, gozoa da; itxasoko ura, gazia; ozpiña, garratza. Sagar batzuk, gaziak dira; besteak, gezak; eta beste batzuk, gazi-gezak.

Ikumena



Eskuaren bidez ikutzen doguz gauzak. Berak esaten dausku ikutzen doguna biguna ala gogorra dan; leguna ala lakarra; otza ala beroa.

Oiñak be laguntzen dautsie ontan eskuai. Bereala esaten dausku oiñak leku bigunean ala gogorrean gagozan; leku zakarrean ala labankorrean gabiltzan.

Askotan gure eskuak aldatu-azoten dauskue, begiz oker artu dogun eritxia. Begiz legun agertzen yakuna, eskuak, sarri, lakarra zala azaltzen dauskue.

Eskua izaten da itxu gaixoaren begia.

Gogoa

Jainkoak gizonaren soiña, auts pixka batez egin eban eta arpegian aize emonaz gogo edo arima sortu eban bere barruan. Gogo edo arimak bizi gaitu.

Gogoaren bidez oldoztu edo pentsatzen dogu.

Gure maitetasunak, gure atsegiñak, gure atsekabeak, gauzen eta egipenen gogorapena, gure asmoak, ez dagoz soiñean, gogoan edo ariman baiño.

Ardura gitxi bear leuskigu soiña eder edo itsusi (motz) izateak.


Arima garbia, ona, maitatia: auxe da guztiok izaten alegindu bear geunkena.

Gure arima ez da ilgo soiñagaz batean. Soiña, barriro be, auts biurtuko da; baiña gogoak beti iraungo dau. Illezkorra da gure gogoa.

Izangaitezan gorputzez garbiak; baiña arimaz, al bada, garbiagoak.

Arima on eta garbiai gure Jainkoak betiko zoriona emongo dautse.

Janízia



Neguan, jantzi lodiagoak erabilten ditugu. Jantzi be-roenak, artillezkoak dira. Artillea ardiareti uleaz egiñada.

Udan jantzi ariñagoak erabilten dira. Eunaz eta oialaz egiten dira gure jantzi edo soñekoak.


Abarkak dira aspalditik gure baserritarrak ibiltzen dabean oiñetakoak.

Jantziak austen diranean, jostorratzaz josten dira.

Ume txukunak soñeko gitxi urratzen dau.

Janariak

Gizonak ogia,
barazkiak, igali-
ak, aragia, arrai-
ñak jaten dauz.



Goizetik artzen
danari gosaria
deitzen dautsogu,
eguerdikoaí bazkaria ta gabekoari aparia.

Zaldiak, beiak, astoak, ardiak bedarra jaten dabe.

Txakurrak, legoiak, katamotzak, aragizaleak dira.

Katuak, arraiña naiago dau.

Oilloak, garauak jaten dauz.

Txori geienak, garauak eta zomorroak jaten dabez.

Geiegi jatea kaltegarri da.

Ez da bein be geiegi jan bear.

Edariak



Edaririk onena ura da.

Ardoa **matsaz egiña da, eta** sagardoa sagarraz.

Beiak emoten dausku esnea.

Esnea umeentzat oso ona da.

Esneaz egiten da gaztea.

Ardoak, geiegi edan ezkeru, kalte aundiak ekarten dauz.

Iziarixo'k bioíz ona dau

Iziartxo eskolatik dator.

Bidean, oiñutsik dabillen ume gaixo bat ikusten dau.

Ogia

Garia batu ondoren errota batera, bolu batera, eroa-
ten da.

An errotariak, garaua eioax, autsa egiten dau. **Auts**
oni uruna deritxo.

Okiñak, ur eta urunaz, orea egiten dau.

Gero orantza erantsita, legamia egiten da.

Ondoren laban erre ta ogia egiña gelditzen da.

Ogirik ez da bein be bota bear

Martin'i bere amak ogi zati bat emon dautso gaiñean
eztia dauala.

Martin'ek eztia miazkatzen dau.

Eta ogia bota egin dau.

Ori txarto egiña da.

Ez da ogirik bein be jaurti bear.

Beartsu askok pozik artuko eben ogi-apur ori.

—Erdi neugaz etxera ta oiñetakoak emongo dautzudaz.

Amak umetxoari oiñetako batzuk emon dautsoz.

Ál dan guztian, on egin bear da.

Esatera zarrak

Gaur egin dagikezuna ez biarko itxi.

Zeuk egin dagikezuna besteri ez egin-azo.

Merkea dalako, bear ez dozun gauzarik ez bein *he* erosi.

Arrokeriak, diru asko eroaten dausku.

Gure burua goregi jaso naiak, askotan barregarri izten gaitu.


Gitxitan damutzen yaku gitxi jana; baiña geiegi jana, askotan.

Gogoko tokian, aldaparik ez.

Gauza guztiak bere alde onetik ar egizuz.

Ez geiegi itzegin, nai ez bada utsegin.

Erregea la iximiño&k




Errege batek tximiño asko ei ebazan, eta dantzan egi-
ten erakuisi-azo eutsoen. Bein soiñeko ederrez jantzi eba-
zan eta arein dantzak ikustera lagun batzuei ots egin
eutsen.

Ba ebiltzan dantzan tximiñuak, baiña ikusle aetaiko
bati gogoratu yakon intxaur batzuk dantzariai botatea.

Berealaxe euren dantzak itxita tximiño guztiak, in-
txaurrak arrapau bearrez, alkarren artean burrukan asi
ta, alkarri atzamarka, soiñekoak ausi ebezan, len baizen
tximiño geldituaz.

Onek erakusten dausku jantziak ez daula gizona egi-
ten. Eta on itxuraz agertu nai ba'dau norbaitek, gaizto
izanik, azkenean gaizto lez agertuko dala.

Etxea



Ludi edo lur onetan izan ziran lenengo gizonak, lezaetan eta arkaizpetan bizi ziran.

Gero txabolak egiten asi ziran.

Abere gaiztoen erpetan ez jausteko, txabola orreik, askotan, uretan sartutako taket-gaiñean egiten ebezan.

Gaurko egunean, gizonak, etxeetan bizi izaten dira.

Etxe orreik batzuetan iru ta lau bizitza, eta baita geiago be izaten dabez.

Kun-kun



Ez negar egin. Nik emongo, bai,
sagar bat zimel-zimela:
amama baizen zimurra eta
gozoa bera bezela.
Au janaz, onclo, magaletxoan
atsegindurik aurrena,
seaskan lo lo, ene potxolo,
jarriko zaitut berela.

Ekatzu moxu,
gero lo egin dagizun.
Lo, lo, tira, maitea;
lo, lo... kun-kun, kun-kun...

Aingeru maite zoragarria
zorigaitz bat ez dozuna,
kuman orrela mugira geldiz
ames egiten dozuna;
zeiñen goxoak diran zuretzat,
nire maitetxo kutuna,
amon zarraren kantuak eta
kumatxoaren kunkuna!...

E. Arrese'k



Etxm

Etxe asko alkarren bertan batzen diranean, erria egiten dabe.

Erri batean kaleak edo karrikak, enparantzak, ibilto-kiak, lantegiak, ostatuak eta beste gauza asko ikusten ditugu.

Erriko-etxean, erria zaindu ta zuzentzen dabenak batuten dira.

Ibaiak alde batetik bestera igarotzeko izaten dira zurbiaíc.

Eliza Jainkoaren etxea da, eta Berari otoi egitera joaten gara elizara.

Baserria

Baserrian, nekazaria bizi da.

Bere soloak bertan ditu ta bere basoak inguruan.
Mendigaiñean, atsegintasunez beterik, zuri-zuri ikusten
dogu baserria.

Nere eí[^]ea

Ikusten dozu, goizean
argia asten danean,
menditxo baten gaiñean,
etxe txikitxo aurre-zuri bat
lau aitz andiren artean,
iturritxo bat aldean,
txakur zuri bat atean?
An bizi naz ni bakean.

Naiz ez izan gaztelua,
maite dot nik sor-lekua,
aiten aitek autatua.
Etxetik urrun yat iduritzen
nunbait nazala galdua;
antxe ni bainaz sortua,
an itxiko dot mundua,
galtzen ez ba'dot zentzua.

Ez da lurrean gizonik,
ezta bere jaun aundirik,
ni baiño obeto danik:
ba-dot andrea, ba-dot semea,
ba-dot atabea be nik;
osasun ona batetik,
ontasun naiko bestetik...
zer nai dagiket besterik?
(Elizanburu'k)

Argia



Egunez a r g i
dago.

Eguzkiak bere
argia nunai zabal-
tzen dau.

Gabaz, illargi-
rik ez danean,
illun dago.

Eta e t x e ba-
rruan be ez da
ezer ikusten.

Ortarako argia
biztu bear da.

Aspaldian orioaz, argizaiaz, lerrargi eta arrorioaz egiten eben argia.

Orain tximistargi ederra, erri txikienetan eta base-
rrietan be ikusten dogu.

Gure aurrekoak, orrelako argi ederra ikusi izan ba-
leben, berari begira zoraturik egongo ziran.

Argiña 4a zurgiña

Orreik izan dira gizonaren lenengoetatiko langintzak.
Bion artean egiten dabez etxeak.

Argiñak, ormak egiten ditu. Lenengo, lurpean orma-
ren oiña artzen dau. Gero, arria arriaren gaiñean ipiñiaz,
ormak jaso.

Zurgiñak edo arotzak, zura landuaz, ateak eta leioak
egiten ditu.

Berak egingo dauskuz baita aulki, mai, mailladi edo
zurubi ta beste gauza asko be.

Etxegaiña be berak egiten dau. Etxegaiña teillaz estal-
tzen da, euria barrura sartu ez dedin.

Alaitasuna



Xabiartxo beti pozik dago.

Bere lagunakaz beti jolasten da.

Martin, barriz, beti bekoki-illun dago. Bere lagunak, bakarrik izten dabe.

Xabiartxo alaia da.

Ume alaiak oso maiteak izaten dira.

Langinízak

Ogia, okiñaren etxean egiten da.

Aragia, arategian saltzen da.

Gatza, ozpiña, lukainkak, indiararak, idarrak, jangai-saltokian.

Gozokiak, gozotegian.

Ardaua, ardantegian; sagardoa, sagardotegian.

Eunak eta oialak, oialdegian.

Oiñetakoak, oiñetakotegian.

Besie langmizak

Beste lagintza asko be ba-dira.

Jostunak egiten dauskuez gure jantziak.

Idaztigiileak, irakurten doguzan idaztiak.

Arrantzaleak arrapatzen dauz arraiñak.

Ikazkiñak egiten dau ikatza.

Osagilleak osatzen gaitu gaixotzen gareanean.

Bizargiñak bizarra kendu ta ulea moztuten dau.

Nekazariak, lugiñak lantzen ditu lurrak.

Errementari edo burdin-arotzak, burdiñeaz gauza asko egiten dauz.

Baratze-zaiñak zaintzen dauskuz gure baratzak.

Menasiak

Burdiñea menasta da.

Beruna, urrea, ta zidarra be menasta edo meatzak dira.

Gauza asko, menastaz egiñak dira.

Urre, zidar ta burdingorritz egiña da dirua.

Urre ta zidarretik gitxi da, ta garestiak dira.

Geietei erabilten dana, burdiñea da.

Mendiak

Ludiaren tximurrai mendiak deitzen dautsegu.

Mendiak dira, gu bizi garean tokiaren apaingarri.

Mendi orreitako batzuk oso goituak dira, eta tontorra beti edurretan dabe.

Ernio-menditik erri asko ikusi daitezke. Eta eguraldi garbia danean, urriñera, urdin-urdin ikusten da itxasoa.



MENDIAK

Abendak



G i z o n guztiak soiña bardiña dabe.

Baiña narruaren mar-
goa ez dabe bardiña.

B a t z u k narrua zuria
dabe.



Besteak, oria.

Besteak, gorria.

Besteak, baltza.

Baiña guztiok

Jainkoaren semeak ga-
ra, eta geure
artean, anaiak.



Azia

Landara guztiak, euren azia emoten dabe. Azi bat, lurpean sartzen ba'da, erne egiten da. Baiña orretarako urez busti bear da. Eta bero egin bear dau.

Udabarrian, batez be, erneten dira landarak. Azia erne danean, jaio ta landara egiten da.

Azi txiki-txiki batetik, askotan, zugatz aundi bat sor-
tzen da.

Zugjitzsi



Zugatza da lurraren jantzirik ederrena.

Begira egiozue zugatz oni.

Bere zanak lurrera josia daukie.

Bere gerria goruntz jasoten da.

Goratxoago adarrak zabaltzen ditu.


Adarrak ostoz eta lorez beteak dagoz.

Lora orreik, gero, igali ederrak emongo da

Zugatzak bere zanetatik artzen dau janaria.

Zanak lurpean artzen dabe ianana.

Afoiak



Arbazta txikiak bat-banaka batuaz Udabarrian egiteir ditue txoriak abiak. Arbazta txiki ta bedar-izpiz egiñak izaten dira txori-abiak. Arrautzatxoak egiten ditu txoriak abian eta arrautzatxoak bero-beroan euki ondoren txort txikiak jaioñen dira.

Txoriak laguntza aundiak egiten dauskuez. Zomorro gaizto asko ilten dabez.

Abesti gozo ta politak abestuez, gure biotza atsegiñez beteten dauskue.

Ez egin txori gaxoai kalterik. Ez arririk bota txoriai,
Ez egizue íxori-abirik apurtu.

Elaia

Elaiak gure leio-ertz ta teilla-egal azpian ipintzen dabe *euren* abiak.

Egan dabilzala, zomorro txar asko il eta aizea garbitzen dabe.

Udazkenean elaiak emendik alde egiten dabe. Toki epelagoetara joaten dira.

Baiña urrengo Udabarrian, len egin eben abira etorriko dira barriro be.

Ume errukitsua

Iziartxo'k etxeko atadian, txarto jantzitako ume bat ikusi dau.

—Nun bizi zara?

—Etxerik ez dot.

—Ogi-apur bat jango al dozu?

—Bai eta pozik, oindiño ezer jan barik nago-ta.

—Eutsi, ba, ogi-zati au.

—Eskerrik asko.

Iziartxo biotz-errukitsua da.

Gose danari jaten emozue.

Artzaiña ela ardiak



—Zatoze onuntz arin,
zatoze, anaiak—
deadar egiten dau
Perutxo artzaiñak;
—otso aundi bat dator
mendi otan bera,
zuzen-zuzenik ona,
ardiak jatera—.

Ta badoaz anaiak
makillak arturik,
bildurrez geldi dadin
ardi gabetanik.
Beingoan eldu dira
lertzeko zorian,
baiña ez da agiri
otsorik mendian.

Biurturik ba-dagoz
geldiro etxean.

Orobat gertatzen da
biaramonean.
Bigarren txalmak daukaz
txit ereztaturik;
urrengoan ez dabe
egin jaramonik.

Orduan egi-egiz
otsoa jatxiaz
menditik artaldera,
laster an asi zan
ardirik ederrenak
ilten eta jaten,
eta, erruki zana,
artaldea galtzen.

Guzurra esan eban
bi bider artzaiñak
eta ez eutsoen nai
siñistu anaiak.

Guzurtiak egia
baldin ba'dau esaten,
guzurtia dalako
ez yako siñisten.
Onela egiten dau
beretzat kaltea.
On da beti egia
nonai esatea.

(Iturriaga)

Um

iturrietako ura, edateko ona da.

Iturrietako urak, ibaietara jasten dira; eta ibaietako urak, itxasora.

Itxasoko ura, gazia da.

Iturrietakoa, geza.

Uraren lurrinak, odeiak eta laiñoak egiten dauz; eta orreitatik euria jausten da.

Ur barik ez gu, ez abere, ez bedar, ez zugatzik ezin bizi geintez.

Beraz, ura bear-bearra da.

Uraren hearra

Ezek ez dausku urak baiño obeto egarria kentzen.

Uraz garbitzen ditugu gure soiña, mosua ta eskuak.

Uraz garbitzen dira gure jantziak, ontziak eta beste gauza asko.


Bedarrak, landarak, zugatzak, ura bear dabe erneteko ta azi ta euren igaliak emoteko.

Iñor ezin bizi daiteke urik bage.

Origaitik zabaldu dau Jainkoak ain ugari.

Urik ez daben tokiak, illak lez agertzen yakuz.

Txakurra ela aragi-puska



Txakur bat joian bein ibai-ondo batetik aragizati bat aboan eroala; eta joiala-joiala, uretan bere aragi zatiaren erraiñua ikusi eban.


Iruditu yakon beste au, berak eroana baiño aundia-goia zala, eta agiñetan eroana itxita urari osk egin eutson, eta onela gelditu zan ez egiazko zatirik ez guzurrezkorik, ezer bage.

Ori jazoten yake askotan, eurena gitxi dalako, besteena arrapatu nai dabenai.

Ura zelako eratan agertzen yakun



iturburuetan sortzen
dan ura, iturriak egin
eta gero mendietatik
b e r a jatsiaz - jatsiaz,
lats edo erreketan ba-
tzen da.



Urak batuta geratzen diran tokiai aintzirak eclo zin-
girak deitzen yake.

Ibaietako urak itxasora joaten dira; eta alan be ez
dau onek bein be gaiñez egiten.


Gero itxasotik aterako dan lurrunak odeiak sortuko



ditu: odeiak euria egin-
go dabe; euritik itu-
rriak sortuko dira; itu-
rrietatik i b a i a k, eta
ibaiak barriz itxasora
b i u r t u k o dira, beti
Jainkoak emondako bi-
detik.



Egazíak



Jainkoak, egan ibilli eitezen, egin ebazan egaztiak.

Aidean dabe euren bizitokia eta an ibiltan dira, gora ta bera, arin ta bizkor.

Euren abietan arrautzak egin eta arrutzetatik txitoak ateraten dabez.

Egaztiak, era askotakoak dira. Txepetxa oso txikia da, eta arranoa aundi ta indartsua.

Goizaldean, eguna asten danean, txoritxoak abestu ta abestu diardue, Jainkoari eskerrak emonaz lez. Euren txorrotxio ta txiruliruak atsegiñez beteten gaituez.

Esatera zarrak

Urak dakarrena, urak claraa.
Ur aundietan, arrain aundiak.
Urte euritsu, urte ogitsu.
Urte edurtsu, urte garitsu.
Txori bakoitzari, eder bere abia.
Oillo ibilkari, azerien janari.

Urrezko armuizak egien ziuan oilloa


Nekazari batek, urte guztian urrezko arrautzak egiten
zitian oillo bat ei eukan.

Baiña gizon a oso diruzalea zan, ta ezin itxoegin nun-
bait oilloak bat-banaka egiten ebazan arrautzai, ta iltea
bururatu yakon, urte guztia batean arrapatzeko asmoz.

Il eban bada oillia, baiña alper-alperrik: oillia barru-
tik beste oillo guztiak langoxea zan, eta ez eutson barruan
urrerik bat be aurkitu.

Eta an geratu zan gizon diruzalea, ez oillo, ez urte.

Arraiñak



Arraiñak urpean bizi dira, eta urpean arnas artzen dabe.


Uretatik ateraten ba'ditugu, bereala ilten dira.

Itxasoan sortzen diran arraiñai, ur gaziko arraiñak deitzen yake, eta orrein artean dagoz sardiña, lebatza, makailloa eta beste asko.

Besteak, ur gozokoak dira, eta orreitan amorraiña oso ezaguna da.

Beste batzuk, barriz, ur gazia ta ur gozoa batuten dan tokian bizi izaten dira, izokia esaterako.

Elxeko abere ta pizúiak



Gure etxeetan izaten doguzan abereak, laguntza aundiak egiten dauskuez.

Beiak esnea emoten dausku.

Zaldi, asto ta idien indarra, gauzak eta burdiak eroteko ta lurra lantzeko izaten dogu.

Ardiak artulea emoten dauskue. Oloak arrautzak. Katuak barriz, saguak arrapatzen ditu.

Eta txakurrak, etxea zaintzen-eta, laguntza aundiak egiten dautsoz gizonari.

Katua oso ethezalea izaten da, eta sukaldeko beroan luzaro ikusiko dozue arrain edo aragi zatiren bat noiz arrapatuko daben zain.

Txakurra ta katua geienetan asarre izaten dira. Baiña zitalak ez diranean, alkarren lagun lez agertzen yakuz.

Adizkide izateko, gogo ona izatea naikoa da.

Lagunak

Aitona zarrak Xabiertxo'ri
bere jaiotegunean
pelotaxo bat erosi eutson
jolastu zedin kalean.
Bere pelota eskuan zula
ikustatu ebenean,
auzoko mufil koxkor guztiak
an ziran danak batean
Xabiertxo'gaz goiz-arratsalde
pelotan egin naiean.
Lagunik asko izan eban bai
pelota eban artean...
bakar-bakarrik zapuztu eben
ura desegin zanean.
Aitonatxoak ikusirikan
tristerik eleiz-aurrean,
ara zer esan eutson polito
etxera eroanean:

«Orrelakoak askotxo dira
gaurko mundu okerrean;
kontuz íbilli, ene kutuna,
lagunak aukeratzean:
lagun zintzoak lagun bear dau
onean legez txarrean».

(Sarriegi'k)

Aiía raolako, seme alako

Agintari zital bat
ezkontzerakuan,
bertsolaria egoan
polito kantuan:
—Eguzkiak bere bein
ezkondu nai eban;
orruaz asi ziran
igelak orduan:

—Eguzki bakarrakin
naiko lan daukagu;
nai ta nai ez mutil zar
izan bear du.
Bada, ezkondu eta
umerikan ba'lu,
errukarri benetan
bai giñakela gu:
Ur dana ondatu,

bazterrak kixkaldu,
gu guztiok galdu.
Gutzaz urrikaldu!
ta orrelakorik ez
guri bialdu!

(Sarriegi'k)

Zelako aldea

—«Aize-bolarak esku artean
jarri zazkitan ostroa,
esan eidazu nundikan dozun
ain usain eder-gozoa».

—«Orbela nozu, larros-artean
luzarotxoan egona;
ortik datorkit artzen daustazun
lurrun gozozko usain ona».

Lagunetatik lagunetara,
ai!, zer zelako akiea:
Onekin ona, txarrekin txarra
izango zara, maiiea.

(Sarriegi'k)

Erleak

Batetik bestera, lorerik-lore doian euli antzeko ori, erlea da.

Lan eta lan diardu egun guztian loretatik guna gozoa artu ta bere abaraskara eroaten.

Abaraska orreik, argizaizkoak dira eta erleak berak egiten dauz.

Abaraska-zulo txikietan gordeten dau erleak lorien gunaz egindako ezitia, beretzat janari izan dagian.

Erleak oso langilleak dira, eta euren bizitzak gauza arrigarri asko erakusten dauskuz.

Golde biak



Golde bi salgai egozan. Bata saldu zan. Bestea, oster, saldu barik zoko batean gelditu zan.

Etxera eroan baizen laster, idiak buztartu ta bereala lurrak goldetzen asi zan.

Eta, orrelaxe, egunero lan egiñaz, beti garbi ta barria lez aurkitzen zan gure goldea.

Bestea, barriz, saldutokian geldi egonaz, erdoiez dana bete ta alperrik ondatu zan.

Geldi egoteak eta alperkeriak, lan egiteak baiño kalte geiago egiten dauala erakusten dausku ipuin onek.

Mutil zinizoa

Xabiertxo'k ziba bat aurkitu dau kalean.

Bere Irakasleari emon dautso.

—Ziba au Andoni'rena da, antza.

—Itaun egiozu berari.

Xabiertxo'k antxe emoten dautso bere ziba Andoni'ri.

Andoni oso pozik geratzen da.

Xabiertxo be bai; gauza on bat egin bai-dau.

Ez dogu bestien gauzarik bein be geuretu bear.


Ez da asarralu bear

- Ama: gaur goizean mutil bi asarratu dira kalean.
- Txarto egiña.
- Eta ni joan naz eurekana ta ez dala asarratu bear esan dautsiet.
- Ederto esana.
- Eta orduan adizkidetu egin dira.
- Xabiertxo: eutsi sagar au; gauza eder bat egin dozu.
- Ama: beste bat emoten ba'daustazu, mutil bi arei bana emongo dautsiet, lengo asarrea aztu dagien.

Abereen garrasi ta olsak

- Txakurrak zaunkaz jarduten dabe.
- Katuak miauka.
- Zaldiak irrintzika.
- Astoak arrantzaka.
- Oilloak karranka.
- Txoriak txioka.
- Oillarrak kukurrukuka.
- Ardiak beeka.
- Beiak muuka.

Adizkide bi eía artza



Adízkide aundi bi
ba-doaz bidean
alkarrekin izketan
alaitasunean.

Artz aundi bat yakie
basotik urteten...


Ikaraz arbolara
bata da igoten;
bestea gelditzen da
gaxoa bakarrik,
artz aundiari ezin
arpegi emonik.
Zer egin onelako
estutasunean?
Illa ba'litz bezela
Jarten da lurrean.
Artzak ez dabelako
gorputz illik jaten,

usain egin ondoren
da aurrera joaten.
Bereala jatsiten
da arbolakoa,
eta lagunagana
lasterka dijoa:
—Adizkidea, diño,
txit dot nik atsegin
zu emen aurkitzea
osasunarekin;
zer ikarak ditudan
zugatik eroan,
bildurrez zu noiz artzak
bear zinduen jan!
Ixilik belarrira
dautzu ak itz egin;
zer esan ete dautzun
nai neuke nik jakin.

—Ara zer esan daustan
artzak belarrira:
Munduan adizkide
—era asko dira.
Ez dozu artu bear,
jakizu gaurdandik
zure adizkidetzat
gizon bildurtirik.

(Iturriaga'k)

Lorea



Landarak loran dagoz. Euren usain gozoa atsegin izaten dogu.

Zugatzak be loratu dira. Laster, lora ori zimelduta, igali ederra sortuko da, ordez.

Euri ta Eguzkiaren indarraz igalia azi egingo da.

Eta gero, igali orreik gure ianari izango dira.

Txori gaixoa

—Ama, txori bat arrapau **dot**.

—Polita izango da, e?

—Bai, oso polita.

—Zer egin bear dautsozu?

—Ankatik ari bat lotu ta jolasean ibilli.

—Ez, ene maite. Ori txarto egiña da. Txori gaixo orrek ez dautzu zuri bat bere kalterik egin. Itxi egiozu egan joaten, eta orrela poza ta bizia emongo dautsozu. Gaiñera, umetxoak be izango ditu eta bera barik il egingo litzakez.

Ez da bein be gaitzik egin bear.

Muñil ona eta muñil gaizioa

Xabiertxo'k maite ditu bere aita, ama, anai-arrebak eta lagun guztiak.

Xabiertxo zintzoa da.

Xabiertxo'k itxuen bat ikusten dauanean lagundu egi-ten dautso.

Xabiertxo'k asko maite dauz lagunak.


Martin, barriz, alperra da.

(Vtartin guzurtia da.

Martin'i iñorgaitik ardurarik ez dautso.

Izan zaiteze Xabiertxo langoak, eta ez Martin'en antzekoak.

Sugea eta nekazaria



Gizon bat ba-joian bein
zelaitik etxera
goiz guztian ian egin
eta bazkaltzera.
Ikusten dau bidean
etzunik sugea,
otzak erdi illikan
korderik gabea.
Errukituz sartzen dau
gaixoa kolkoan,
ango beroarekin
bizteko asmoan.
Etxera joan zaneke
sugea asi zan
kolkotikan kanpora
atera nairikan.
Gaiñetik botateko
gizonak artzen dau,

eta suge gaiztoak
orzka pozoitzen dau.
Orra esker ederrak!
Zitalen eskutik
ez dau izango iñok
bein be gauza onik.

Illabete baiño len
suge axe bera
otzak ikaraturik
dator sukaldera.
Oiuka asten dira
etxeko guztiak;
jarraituten dautsoe
morroi-nagusiak.
Sartzen da ukulluan...
ba-dabiltza billa;
aurkitzen dabe eta
izten dabe illa.

Zitalkeriak ez dau
bein be gauza onik,
eta iñok ez dau nai
ikusi zitalik.

(Iturriaga'k)

Batukela



Xabiertxo'k batuten ikasi
nai dau.

—Zenbat dira bat eta bat?

—itauntzen dautso aitag.

—Bi, jauna.

—Eta bi eta bi?

—Lau, jauna.

—Zenbat sagar dagoz otza-
ra orretan?

—Iru, aita.

—Eta mai gaiñean?

—Lau, jauna.

—Guztiak batu ezkeru, guztiak bat jota, zenbat izango
dira?

—Zazpi.

—Orduan —diño aitag— iru ta lau zazpi dira.

Kendukeía



Xabiertxo'k kenduketa egi-
ten ikasi nai dau.

—Biri bat kendu ezkeru,
zenbat gelditzen dira?

—Beste, bat jauna.

—Ik lau sagar ba'dauka-
zak eta ire lagun batí bi emo-
ten ba'dautsozak, zenbat gel-
ditzen yatazak?

—Beste bi.

—Eta zazpi sagar otzara
onetan ba'yagozak eta lau
kendu, zenbat geratuko dozak barruan?

—Iru, jauna.

—Ederto, oso ederto.

Lia

Gu bizi garean iekuari, Ludia edo Lurra deritxo.

Ludia be, Eguzkia, Ilargi eta beste izarren antzera,
borobilla da.

Lur gaiñean ikusten doguz zelai, mendi, ibai ta itxasoak.

Itxasoak estaltzen dabe lurraren gain geiena.

Mendi-tarte bati arana deitzen dautsogu; ta ibaiondoari, ibarra.

Lurra aizez inguratua dago, eta aize ortan arnasa artzen dogu.


Udabarria

Lenengo elaiak datozanean, udabarria da. Eguzkiaren argiak, bedarraren margo orlegiak, loreen edegitzeak, zugutzen osto-zabaltzeak, txorien abesti samurrak eta umeei jolasketak, gure biotza pozez beteten dabe udabarrian.

Negu baltz ta atsekabea joan da. Ortze urdin ta garbiak gure biotza alaitzen dau. Loreak nunai sortzen dira.

Txoriak emen eta an euren abiak egiteko gaibilla dabil. Beste batzuk abietan umeakin dagoz; eta umetxoak, noizean bein, euren aotxoak edegita dagoz amak ekaríen dautsen janariaren zain.

Zoaze udabarriko goiz eder batean baso edo srienc.. batera. An ezagutuko dozue ondoen, neguaren ondorengo udabarriaren atsegintasuna.



UDABARRIA

Basoa

Gure mendiko basoetan era askotako zugatzak ikusten doguz.

Ezagunenak oneik dira: aritza, artea, gaztaiña, lizarra, zumarra, urkia, pagoa, izaia eta beste asko. Etxeak eta beste gauza asko egiteko zura ederrak emoten dauskuez guztiak.

Gernika'ko Aritzaren azpian egiten ebezan antxiña euskaldunak euren lege zarrak,

Gure mendi guztiak, basoz ondo orniduak izan bear leukie.

Uda


Udea da urtearen aldirik beroena.

Egunak oso luzeak dira udan, eta gabak laburrak. Goizean lauretako argi da, eta argitasun orrek berak jagierazten gaitu.

Eta goiz jagiten dana, ez da bein be damutzen.

Zugatzak ostoz oso ornidu oi dira.

Lorak be, *euren* margo eder ta usain gozoak, orduantxe zabaltzen dabez.



UDA

Galburuak be udan ederto elclu oi dauz eguzkiak, eta orduan asten da nekazaria itaiaz lasto luzeak ebagiten.

Itxasertzetan bizi diranak be itxaso barearen gelditasunaz eta itxas-aizearen gozoíasunaz, atsegiñez beteak aurkitzen dira udan.

Umientzat batez be, au da urtearen aldirik ederrena.

Egun-Sentiko pozak

Bai gauz ederra dala
goizean goizetik
udaran jagi eta
makil bat arturik
mendian egitea
ibiltxo bat beñik!

Ez da munduan izan,
ez orain t'ez lendik,
orrek damoskun baiño
poz aundiagorik!

Ipar-aize leguna,
likurtaz beterik,
gure kolkora dator
lorien tartetik;
bazar guztiak dagoz
intzez apaindurik,
urdin-urdin zerua,
pipirrika txorik,

eguzkia be barrez
mendien gaiñetik;
maindire bat bezela
goruntz arroturik,
laiño zuri goiztarra
erreka-zulotik;
jolasean amilka
iturritxo garbik;
emen larros politak,
an krabelin gorrik.
(E. Arrese'k)

Igesi egite

Zer gauza ederragorik, bero dagoanean uretan sartu eta bustialdi gozo bat artzea baiño?


Alantxe da, baiña, ene umetxoak, ez sartu bein be uretan, ibai edo itxasoan, igeri ondo dakien norbait laguntzeko aldamenean ez ba'dozue. Bestela, errez ito zindekez.

Igeri egitea gauza atsegiña ta bear-bearrekoa da. Igeriketa, gaiñera, osasungarri da.

Udaskena

Udazkenean igali edo frutak batzen dira.

Egunak laburtu eta gabak luzatzen doaz.



UDAZKENA

Udea joan dala bereala ezagutzen dogu.

Bero aundirik ez dau egiten eta giro atsegiña izatert da egun geienetan.

Gaiñera, uda zalako, ikaskizunak be alde batera itxiak ogozan, eta orain barriz lanean asi bear da.

Beti jai ta beti jolasean ezin bizi geintekozala erakusten dausku udazkenak.

Bizi nai ba'dogu, lan egin bearrean gara.

Labore-baízea

Au izaten da nekazariantzat urtearen aldirik onena.

Ainbeste neke artu bai-eban udabarria lurrak lantzen, ongarritzen eta garbitzen.

Eta berak izan zituen bildurrak, udako ekaitz eta kas-kabarrak guztia galduko ete eutsoen?

Baiña orain nekazaria pozik da: madari ederrak, sagar usaindunak ta mats-mordo gozoak batu ditu.

Lan egin bear da beti, zerbait batu nai ba'da.

Ereiten ez dauanak, ez dau batzen.

Negua

Negua da urtearen aldirik otzena eta atsekabeena.

Laiño baltzetatik euria dario neguan, eta askotan, otz baldin ba'da, ixil-ixillik, baita edurra be.

Baiña neguak bere atsegiñak be ba-ditu. Etxebarre-
nean batu ta, orduan be lan egiten da; ta arrats luzeetan
sutondoan aldi ederrak igaroten dabez senideak alkarren
artean jolasean edo aita ta amaren irakaskizunak ikasten.

Lan egin dagigun gogoz neguan, gero eguraldi onak
etottean, egurastera poz geiagoz urten gaitezan.



Eguzkia

Eguzkia da Ludiari eta guri argia ta beroa emoten dauskuna.

Berari eskerrak, bizi gara. Eguzkia oztuko ba'litzake, bereala ilgo giñake.

Eguzkia gure Ludia baiño askoz aundiagoa izanarren, txikia ba'litz agertzen yaku, oso *vrin* bait-dago.


Ba-dirudi, Eguzkia Lurraren inguruan dabillega. Eta ez da orrela. Lurra da Eguzkiaren inguruan dabilena.

Gaiñera Lurrak, edo Ludiak, egun bakoitzean bira bat emoten dau bere ardatzean.

Eguzkia urteten dan tokiari Eguzki-aldea edo Sortaldea deitzen yako. Eta sartzen dan tokiari Sartaldea.

Beso-zabalik ipínten ba'gara, eskubikoa Sortaldera eta ezkerrekoa Sartaldera dogula, aurrean daukaguna Iparraldea da, eta atzean Egoaldea.

Eguerdian Eguzkia Egoaldean dago.



Egimseniia

Egunsentia dator
goizero bezela
argi-txintaz banatzen
milla sentiera;
gero txokon batetik
mendien gaiñera
urtengo da bar-irriz
eguzki epela,
nagitasun guztiak
lurrari kentzera.

Goi-argitzen danean
zerbait urrutia
ezkutatzen dijoa
izarren argia;

urdin-urdin jantzirik
zerupe garbia,
laster osatutzen da
ud'egun barria,
ainbeste poz ta atsegin
dakarren aldia.

(E. Arrese'k)

Gizonaren bizia


Gure bizia, oso laburra da.

Jaioten da gizona, eta gero ainbeste lanetan azi ta
bizi ondoren, azkenik, zartutakoan, il egiten da.

Baiña askotan ez da zartuta ilten. Askok, gaitzen bat
arrapauta, gazterik aurkitzen dabe eriotza.

Ez uste izan, ba, ene umetxoak, betiko zariela.
Ikusten dogun guztiak, bere azkena izango dau.

Jainkoak bakarrik iraungo dau beti: Bera bakarrik
da betiko.



Illunabarra

Ixil-ixillik aurkituten da,
ixil-ixillik mundua;
ez da mendian ezer entzuten,
ez bada ontzen oiua;
ixillik dago tantai-gaiñean
lengo txori barritsua,
lumatxo bigun arro artean
gorderik bere burua.

Gero goi zabal miragarria
urrez apaintzen danean,
otoitz egiñik beti bezela
oerutzen garenean...
gau izartsuak estaltzen gaitu
laiñuzko maindirepean
errugabeko lo lo goxoa,
egin dagigun bakean.

(E. Arrese'k)

Orizea edo zerua

Jaso egizuez zeuen begiak zerurantz. Eguna baldin ba'da ta garbi ba'dago, antxe ikusiko dozue zuen gaiñean Eguzki ederra, argia ta berotasuna ugari dariola.

Gaba baldin ba'da ta ozkarbi ba'dago, barriz, antxe Ikusiko dozue gauzarik arrigarriena: aneika ta aneika, millaka ta millaka argi txiki bizi. Argi orreik izarrak dira. Eta izar orreik gure Eguzkiaren antzekoak dira. Oso urrin dagozalako agertzen yakuz txiki.

Zenbat izar dira? Iñok be ez daki: ezin zenbatu dai-tekez.

Gure Eguzkia be izar bat da, eta ez audienetaikoa; beste asko ba-dira aundiagoak.


Eguzkiak zortzi Inguruko nagusi ditu bere inguruan: Merkuri, Artizarra, Ludia, Marte, Jupiter, Saturno, Urano a Neptun. Gaiñera beste Inguruko txiki asko ditu.

Inguruko guzti orreik berez argirik ez clabe; izarbelak dira, eta guri egiten dauskuen argia, Eguzkiak emona dabe.

Argiak iroiren edo segundo bakoitzeko 300.000 (iru-reun milla) kilometro ibiltzen ditu.

Eguzkiaren argiak gugana eltzeko zortzi minutu bear ditu.

Baiña izarrak askoz urrunago dagoz. Bertena dagoanaren argiak bost urte bear ditu gugana eltzeko.



EGUZKIA TA IZARBELAK

Beste asko oraindik be urrutiago dagoz eta euren argiak baita millaka urte be bear ditue ona eltzeko.

Izarrik ederrenetaiko batzuek Antare, Siri, Aldebaran eta Arktur dira.

Izar aundi orrei, irudi bat lez agertzen yakuzanean, izartiak deitzen yake.

Izarti ederrenetaiko bat Orion (euskeraz «Iru Errege-ena») deritxona da.

Ezin gengike neurtu izartegiaren aunditasuna. Berak azaltzen dausku garbi, bere Egille, gure Jaungoikoaren aunditasun neurribakoa.

Illargia

Izarrak argi egiten dabe, baiña izar-illak edo izarbelak berez argirik ez dabe.

Illargia izarbel bat da, eta Lurraren inguruan dabil.

Lurra edo Ludia baiño askoz txikiagoa da. Bertan agertzen diran itzalak, ango mendiak dira.

Mendi asko ta aundiak dira illargian.

Baiña dirudienez, an ez da iñor bizi.

Guri lez, Illargiari be Eguzkiak emoten dautso argia.

Zugafizai ez kalierik egin

Zugatzak dira gure mendien jantzirik ederrena. Zugatzik bage gure mendiak soil eta bízirik bage lez egongo litzakez.

Eurak emoten clauskue itzal gozoa, kerizpe atsegin-garria, udako egun beroetan.

Eurak emoten dauskue, gure etxeak, gure maiak, jarlekuak eta beste gure tresna asko egiteko gaia.

Eurak emoten dauskue gure janariak egosi ta erreteko errekaia.

Eurak laguntzen dauskue neguko otzetan gure etxeak epeltzen.

Zugatzik bage gure ibaiak agortuko litzakez; gure olak geratu egin bearko leukie.

Kentzen dan zugatz baten ordeaz barri bi ipiñi bear litzakez.



Eguraldi ona

Gaur eguraldi ederra dogu.

Goizetik nastuko zala zirud'sen, baiña odeitartetik eguzkia agertu da ta guztia argitasunez bete dau.

Mendi goituak oraindik be lausotan bilduak dagoz.

Toki eguteretan, ospeletan baiño giroago dago.

Itzala udan atsegiña izan arren, neguan atsekabea da.

Jaiegunetarako eguraldi ederra lakorik ez da, mendi batera igon ta ederto egurasteko.

Eguraldi ona, guztiontzat atségiña izaten da.

Txoriak, batez be, ba-dirudi eguraidi ona danean egi-ten dabezala euren txorrotxiorik ederrenak.



Eguraldi ixarra

Aize indartsu onek, azkenik, ekaitza ekarri dausku.

Euri-jasa aundia da. Kaskabarra be nunbait izan bear dau. Kaskabarrak, eta batez be arriak, kalte aundiak egiten ditu.

Tximist aundia zan ori!... Bai trumoia be, ikaragarria izan da!

Etxe-gaiñean tximistorratza ba-dogu, ta ba-leiteke an jausi izana.

Ara! Eguzkia odei artetik urtetan asi da... Auxe da ostargi ederra!... Bai margo garbiak dituala! Gorria, ur-diña, oria, orlegia...

Ez bada bildur izan, eguraldi txarraren ondoren eguraldi ona etorriko da-ta.

Ekaifza


Estatitzen dabe zerua odei
izugarriak
guztia dar-dar ipinten trumoi
dunboslariak;
bildurtzen gaitu gau illunean
tximistargiak,
t'ez gitxiago ondorenean
jazar aundiak.

Zatitzen difu aizeak gogor
mendi-buruak;
urratzen bean uiolak alor
oparotsuak;
jasa bizia dakar berela
ekaitz-oiuak,
misto suminkor latza bezela
sube-txistuak.

Sututzen dira tximistaz jota
zugatz igarrak,
gorritzeraiño bere sugarraz
odei nabarrak;
itxas aldera gainka dijoaz
ibai azkarrak,
gero ta geigo purrukatuaz
mendi-baztarrak.

(E. Arrese'k)

Errekaiak



Janariak egosi ta erretako, sua egin bear da.

Sua egiteko, errekiñak, txirbil, ezpal eta egurrak bear dira.

Su artu baizen laster, errekiñak garra ataraten dau.

Sua, egur-ikatzaz be egin daiteke. Ikatza ikazkiñak egiten dabe.

Txondorra deitzen yako ikatza egiteko egurpilloari. Egurpilloa, lurrez estali ta azpitik su emon-da pitinka-pitinka ikatz biurtzen da.

Sukaldean erreten dogunak egiten daben kea, kebi-detik gora joaten da.

Arrikatza, lurpetik ataraten da. Lenago, orain milla urte asko dala, baso aundiak ziran lur gaiñean.

Baso orreik gero, urpean eta lurpean geratuta, arri biurtu ziran.

Eta orain, ainbeste urte ondoren, arrikatz orixe da errekairek onenetaiko bat.

Arrikatzetik beste gai asko be ataraten dira.

Burdiñea

Burdiñea be lurpean izaten da, baiña lurpean danean ez da oraindik burdin, burdinkia baiño.

Meatzetatik ataraten dan burdinkia labetan urtu bear da burdiña egiteko.

Burdiñea sutan landuta, galtzairu egiten da. Galtzarua, burdiñea baiño gogorragoa da.

Burdiñea, gauza askotarako erabilten dogu. Ezin egingo litzakez millaka gauza burdiñarik bage.

Eta, alan be, gizona urte askotan bizi izan zan burdiñarik ba-zanik be jakin bage.

Orduan tresnak zurezkoak eta arrizkoak izaten ziran.

Aizkora eia kirtena

Egurgille bat
sort-egitera
joan zan basoan zear,
eta bidean
galdu ei yakon
aizkoratikan kirtena.

Sort-egiteko
beste barri bat
egin nairik aizkorari,
gaia eskatzen
asi ei yakon
an zan zugatz bakoitzari.

Iñok ez eutson
gairik emon nai,
eta arteak bakarrik
adar metxo bat
eskiñi eutson
gaixo artaz kupiturik.

Kirten barria
egin ondoren
sartzen dautso aizkorari,

eta jo-ta-jo
or asten yako
arte arixe berari.

Au ikusita
or asten dira
zumarrak eta leizarrak,
arte onari
gogor egiten
oiu eta deadarrak:
—Asto aundia,
(esaten dabe)
ez al ekian oraindik
egurgilleak
bizi dirala
guk galtzen clogun bizitik?

Orra zer esker
emoten dauan:
orain asi dok igandik;
laster ez gaozak
bat bakarrikan
basoan itxiko zutik.

Ir! bakarrik
egin ba'euan,
kaikutzar ori, kaltea,
ezer ez zoan;

**baiña guretzat
ez dok izango ohea.**

Bere etsaiari
emon ba'dautso
noizbait norbaitek eskua,
len edo gero
ikusiko dau
galdurik bere burua.

(Iturriaga'k)

Garia

Garia ereiteko, lenengo lurra landu bear da.

Lurra goldeaz iraultzen da.

**Lurra iraulita gero, mokil-jotzaillez sokillak jo bear
dira.**


Ondoren gari-aleak erein.

Andik illabete batzuetara, antxe erneko da garia.

**Galburuak egin ta eldu diranean, barriz, garia ebagi
ta batu egiten da.**

Batu nai ba'da, erein egin bear da.

Aizea



Aizez inguratuta bizi gara, alde guztietatik.

Aizerik bage ezin bizi geintekenez.


Arnas artzean, aizea sartzen yaku barruan, eta barruko odola garbiu egiten dausku aizeak birikietan.

Baiña orretarako aize garbia bear da.

Mendi gaiñetako aizea, geienetan, bekoa baiño garbiagoa izaten da.

Origaitik ona da, al dan guztian, leioak zabalik lo egitea, aizea barritzeko aiña beñipein.

Edurra




Neguko eguraidi txarretan, goietan otz dagoanean, euriaren ordeztu edurra egiten dau.

Umetan nor ez da pozik egon, mara-mara edurra diarduala ikusten?

Edurra ez da otzak gogortutako euri-bisutsa baiño. Bisuts-tanta txiki orreik alkarganatuta edurmatatza egiten dabe.

Edurra polita da egun batzuetan ikusteko. Baiña azkenetarako aspertu egiten dau. Zuritasun arek, ixiltasun arek, eriotza gogoratzen dausku.

Izoíza



Otz aundia egiten dauanean, ura oso gogortu egiten da. Otzak gogortutako urari, izotza esaten dautsogu.

Izotz zati bat sutondoan ipinten ba'dogu, ur biurtzen da, eta orduan izotza urtu egiten dala esaten dogu.

Izotzaren antzera berotan urtzen dira burdiñea, beruna, zidarra, urrea ta beste menasta guztiak be.

Errialde batzuetan, oso otz aundia egiten daualako, ibaiak eta baita itxasoa be izozten dira, eta gizonak eta burdiak be gaiñean ibilli daitezke.

Iíxasoa

Itxasoan batzen dira ibaietako urak, baita ibai orreik ekarten dabezan ondar, arri ta beste gai guztiak be.

Bein be ikusi al dozue itxasoa? Azkenik ez dauan zelai aundi bat dirudi. Itxasoak Jainkoaren aunditasuna agertzen dauku.

Bere gaiña, geienetan, olatuz edo uíñez zimurtua ikusten dogu. Eta ekaitza danean, ikaragarriak dira olatuak.

Itxasoaren ondoa oso aundia da: emen ditugun mendi guztiak baiño aundiagoa.

Itxasoak egunero izaten ditu bere gora-berak. Goruntz doanean, izgora deiizen yako; eta bera doanean, izbera.

Legorra ta itxasoa ikutzen diran tokiari, izbaztsrra deitzen dautsogu.

Eta itxasoan sartzen dan legor-zatiari, lurmuturra.

Arrokeriaren ondorena

Ikusirikan igel zar batek
oxin-ondoan idia,
burutaratu ez yakon bada
axe aiñako izatia.
Orretarako galdetu eban:
—«Esan, umeak, egia:
ea nazan ni aurrean dagon
idia baizen aundia».

—«Ainbestekoa etzara, ama»,
erantzun eutsoenean,
igelak bere narru zimela
puzturik ler-bearrean:
—«Eta orain zer?» —galdetutzean,
igeltxoak bat-batean:
—«Oraindik, ama, txikia zara
iditzar orren parean».

Asarraturik igel arruak,
idia aiñako izan naiez,
puztutzearren egin ebazan
egiñalen egiñalez,
an erori zan zart-ler eginda
bere semetxoen aurrez,

idia nasai zegon lekutik
ekiotsala irri-barrez.

Aundinaikeri ta arrokeriak
orra zelako azkena!
Nok bereakin naiko dauala,
ori litzake onena.
(Sarriegi'k)

Txiinarra eia tóñurria

Iduriten yakon bai
errukigarria
txitxarrari, auzoan
eban txiñurria,
ikusten ebalako
lertuten lanean
eguna pizkatxo bat
onduten zanean.

Askotan esan eutson,
ez irriz, benetan:
—Ez yoat lanik egin
neure egunetan;
eta uste yoat nik,

nire mutikoa,
lan egiten dabena
dala txit astoa.
Zer ibilli bear dok
beti arrastaka,
ezin gari ale bat
karraiaturika?
Etorri eta joan,
beti jira-bira,
eroateagaitik
ale bat abira?
Bizi-modu txar ori
itxik, txiñurria;
egin eik nik egiten
dodantxo guztia.—

Txiñurriak jakiñaz
gurasoetatik
ezin biziko zala
egin gabe lanik,
txitxarraren esanik
ez eban aditu,
eta bere lanari
oi eutson jarraitu.

Bitartean txitxarrak
eban igaroten
uda guzti-guztia
sasian kantatzen;
baiña gaizki jo eutsón
soiñua kukuak;
uda joan ta eban
atzemon neguak,

eta bai-dabelako
kopet itsusia
joan ziran txitxar kanta
eta erausia,
eta buruturikan
udako asea
otzak ekarri eban
berekin gosea.

Txitxarra gelditu zan
argala, ixilla,
este tximurtuakaz
eta erdi illa.

Oroitzen da auzoan
ba-dala zer jana;
ba-doa arrastaka
txiñurriagana.
Eta esaten dautso
doi-doia argalez:
—Adizkidea, dautzut
eskatzen, eskarrez,
zure gordaidutikan
pizkatxo bat zer jan
zelanbait egun baltz au
igaro dagidan.


Ikusi ebanean
ain argal txitxarra,
txiñurriak, egiñaz
gogotikan parra,
—Aral —esaten dautso
zu onuntz, txitxarra?

Kantari ona zara,
beargille txarra.
Uda igaro dozu
erausian, kantan,
ni nenbillen artean
lertzen lan eta lan.
Eta orain nai dozu
txiñurri-nekeak
bete dagizan txitxar
alperren esteak?
Ez, ez orrelakorik;
ona da ikustea
mundu onetan zer dan
alper izatea.
Ni len nekatu eta
ba-noa jatera;
zu geldi egon zara...
zoaz kantatzera.

Lagundu bear yako
beargilleari;
ez, ostera, bein bere,
alperra danari.

(Iturriaga'k)

Ondarízan



Xabiartxo ta (ziartxo oso onak dira, ta aítak eta amak
Getxo'ko ondartzara eroan dabez.

Umien poza, ain toki ederrean aurkitu diranean!


Bereala asi dira ondarretan zuloak, tontorrak eta zu-
biak egiten.

Naiko jolastu ondoren, Xabiartxo'k itandu dau:

—Aita, zer da mendi tontor a?

—A? Ugarte bat. Ur-artean dagoalako, urez ingura-
tuta dagoalako esaten yako Ugartea.

—Eta or aurrean doan gauza luze ori?



—Ori? Arraun-ontzi bat. Or yoazak arrantzale batzuk euren arraunaz ontzitxo arin ori aurrera daroela.

—Eta beste gauza aundi a?

—A? Aize-ontzi bat. Zapi aundi areik zabalduta, aizearen indarrak daroalako esaten yakok aizeontzia. Beste areik lurrun-ontziak dituk, eta lurrunaren indarrak ibiltzen yozak.

Naiko jolastu ta asko ikusita gero, etxera joan ziran guztiak.

Umeak, onak diranean, euren gurasoak pozik eroaten dabez onelako gauza ederrak ikustera.

Asíunlasuna

Arri bat lurretik jaso nai dogunean, ikusiko dogu betik zerbaitek eusten ba'leutso lez gaitz egiten yakula jasotea.

Arri ori, beste gauza guztiak lez, astuna da. Arriaren astuntasunak egiten dau, jasotekoan, guk zailtasun ori aurkitzea.

Gauza guztien astuntasuna ez da bardiña: burdiña, lastoa baiño astunagoa da.

Astuntasuna neurtzeko, Azta-neurkia erabilten dogu.

Belea eía sugea

Bela batek, sugea lo egoala ikusirik, joan eta mokoaz (pikuaz) arrapatu eban. Baiña sugea itxartuta, beleari lepoan bildu ta ito egin eban.

Gauzak egin baiño len, ondo ikusi bear dira; bestela, gauza ona aurkitzea uste dogunean, askotan txarra urte-ten yaku.

Izkunizak

Jainkoak gizonari emondako gauzarik ederrenetaiko bat izkuntza da.

Izkuntzaren bidez adierazten ditu gizonak bere gogoak, bere atsegiñak, bere atsekabeak.

Era askotako izuntzak dira; abenda geienak badabe eurena.

Izkuntza orreik be ez dira alde guztietan bardin izaten. Izkuntza bateko bardiñak ez diran itz egiteko erai, izkelgiak deitzen yake.

Ludian zabalduenak diran izkuntzak, ingelera, pantzera, doitxera eta españera dira.

Gure izkuntza, euskera da. Ludian dan izkuntz zarre-
netaiko bat; eta ikasi daben jakintsu guztiak, bere eder-
tasunez arrituak geratu dira.

Euskalerria

Ara zein alai dagon
gure sorterrria,
aritz, pago ta lizar
bikaiñez jantzia!

Alde bateko mukan
itxas ugaria,
arkaitza jo ta astintzen
bere apar zuria;
saroi aparotsuak,
kerizpe geldia,
baserritxoak nunai
ta nunai bakia;
mendi-gain bakoitzean
txabola txikia,
artalde bat ondoren,
gero... gurutzia!

(E. Arrese'k)

Euskalerrriaren ederíasuna

Ez guk onela diñogulako, arrotzak be diñoelako baiño, Euskalerrria, ludiko tokirik ederrenetaiko bat da.

Zelai ikusgarriak agiri ditu nunai.

An eta emen zugatzez ondo ornidutako mendiak: Ori, Aizkorri, Aralar, Anboto, Gorbea ta Ernio dira goituene-taikoak.

Ibai oparoak ongarritzen dabez zelai ta ibarrak eta erabilten ainbeste ola ta lantegi, bazter guztietan: Ibaizabal, Mundaka, Deba, Oria, Uruméa, Bidasoa, Errobi edo Nibe, Ebro ta Arga dira gure ibai aundienetaikoak.

Bere erri ezagutuenak Bilbao, Gernika, Tolosa, Azpeiti, Donostia, Gazteiz, Donibane, Atarratze, Maule, Iruña ta lizarra dira.

Nok ez dau entzun Donostia'ren edertasuna? Izan dai-teken erririk eder eta politena dala diñoa ao batez guz-tiak.

Poztu gaitezan, bada, Euskalerrria'n jaioak gareanok.

Euskal-eresia

Tontor gaillenez inguratua
zauden lur maitagarria
mendi bakoitza ba'litz bezela
beronen gordelaria;
gizon ernai ta zintzo askoen
sorterri kutsu-gabia..
lurrin beroaz orniturikan
euskaldun izan zaitia.

Euskalerrria goitu dezagun
euskera maite degunak,
aitortu lengo zorion eder
berak eman dizkigunak;
nunai arduraz banaturik itz
amari jaio t'entzunak,
alkartasunez bizi gaitean
beti-beti euskaldunak.

(E. Arrese'k)

Alkariasuna indarra da

Nekazari batek seme-alaba asko ebazan. Baiña, geienetan, eureti artean asarre izaten ziran.

Bein ta barriz, onela bizitzea eurentzat kaltegarri zala esan arren, egunero iskanbillen bat izaten eben.

Batean aitag, guztiak baturik, abar sorta bat eskuetan artu ta onela esan eutsen:

—Ikusten dozuez abar oneik? Bat-banaka austen oso errezak dira. Ikusi egizue zeuek be. Baiña guztiak alkartuta sorta bat egiten ba'dogu, nok ausi? Zuek be guztiok alkartzen ba'zarie, alkarri lagunduaz, sendo izango zarie; baiña banatu ezkeru, laster galduko zarie. Alkartasuna indarra da: izan au beti gogoan.

Laníegi eia olak

Ola cieitzen eutsien len burdiñea urtu ta lantzeko egiten ziran etxe aundiai. Oindiño be nun edo an ikusten dira ola zarrak.

Baiña gaurko egunean era askotako olak ditugu: ingi-ola edo paper-olak, untze-olak, txapel-olak eta beste asko.

Ola aundi orreitan langille askok lan egiten dabe, ta makiña edo tramankuluen bidez egunetik egunera gauzak errezago egiten dira.

Arrigarriak dira ola orreitan diran aurrerapenak. Lenago langille batek amar gauza, egun guztian gelditu barik lan egiñaz, egiten ba'ebazan, orain, ia neke barik, eun edo berreun egin legikez.

Gizonak sortutako aurrerapenak, arrigarriak dira.

Sumendiak

Mendi batzuk, euren muturretik, autsa, kea ta sua botaten dabe. Eta sumendiak deitzen yake.

Askotan ke utsa darioela egoten dira luzaroan; baiña, noizean bein, su ta gar asten diranean, gizon biozdunenai be bildurra sartzen dautsie.


Ango lurrikarak, ango turmoi ta tximistak, ango autsjasteak egiten daben illunpeak, edozein ikaratzen **dabe**.

Sumenditik urtua urteten dan laba goriak erri asko ta asko kiskali ta galdu izan ditu.

Ftali'ko Napoli'n dagon Besubio-sumendia, oso ezaguna da.

Orain bi milla urte berak auspean estalduta ítxi eban Pompei erri ederra, urte asko ez dala, autsa kenduaz, amxe agertu dabe lurpetik ítaliarrak.

Idazketa



Jainkoak egin ebanetik bertatik gizonak itz egiten bakan; baiña alan be urte asko joan ziran beste gauza arrigarri au sortu eban arte- bere gogoak, bere itzak, arrian, olean, narruan, paperean, ikusten diran lerro edo ikurraz idatzi ta iraun-eraztea askoz geroztik sortu eban gizonak; eta orixe da idaztea.

Iñok ez daki nor dan idaztea sortu ebana.

Idazkera asko dira. Batzuk ezkerretik eskumara idazten dabe, guk lez; besteak, eskumatik ezkerrera; besteak, goitik bera, eta beste batzuk betik gora.

Idazkortaz idazten dogu: axotean, tintan, muturra bustiaz.

Idazketari eskerrak, eldu yakuz gaurdaiño antxiñako jakitun askoren gogo ta asmo ederrak.

Itzak egan joaten dira, baiña idatziak iraun egiten dau.

Idazíia

Orain eskuetan daukagun au ídazti bat da, liburu bat.

Idazti onek orriak, eta orri bakoitzak orrialde bi ditu. Orriak, zuriak dira. Izkiak, baltzak.

Orriak, ingizkoak, paperezkoak dira.

Gaiñekoari azala edo idazti-azala deitzen yako.

Idaztiak, len, eskuz idatzia izaten ziran; baiña 1450'-garren urtean Gutenberg doixtarrak irarkintza sortu eban ezker, irarkiñez irarriak egiten dira.

Irartzeko berunezko izkiak erabilten dira. Izkiak bear lez ipiñi ondoren, makiña batean jarri eta axotez beztu bear dira; eta gero arein gaiñean ingi edo papera zapalduaz, irarketa egiña gelditzen da.

Onela, eta baita beste era barriagoetara be, egiten

dira gaurko egunean ainbeste ta ainbeste idazti eta ainbeste izparringi.

Irakurtea, ogia baizen egunerokoa da gaur askoren-tzat.

Ludiaren zaíiak

Bost dira: Europa, Asia, Apirka, Amerika ta Ozeania.

Europa da txikiena, baiña baita aurreratuena be. Bertan bizi diran abenda geienak, zuriak dira.

Asia da zatirik aundiena. Ludiko mendirik goituena antxe dago. Zortzi milla neurkin edo metro baiño geiago ditu Imalaia'k. Asia'n bizi diran abenda asko, orietakoak dira.

Apirka da zatirik beroena, eta ango abenda geienak baltzak dira.

Amerika bi zatitan ebagia dago: goikoa eta bekoa. Be-koan dago ludiaren ibairik aundiena: Amazonas-ibaia.

Kolon itxasgizon bulartsuak aurkitu eban Amerika. Baiña, askok uste dabenez, a baiño lenago arrantzaie eus-kaldunak bai ei ziran ara elduak.

Ozeani geiena ugarte txiki askotan sakabanatuta dago. Ugarte orreitan bat, oso aundia da: Australia.



Elkano



Elkano euskalduna izan zan ludi guztia lenengoz inguratu ebana.

Biotz aundiko getariar au, San-lukar'tik beste askogaz bost ontzitan urten zan Be-ko A m e r i k a ' r u n t z. Andik India'rako bide barri bat aurki-

tzeko asmotan joiazen.

Magallanes eben buruzain.

Magallanes'ena deritxon Itxas-estua aurkitu ondoren, Pillipin-Ugarteetara eldu ziran.

Baiña an, Magallanes angotarrak il eta, bere lagunak Elkano jarri eben agintari; eta gose, neke ta naigabe artean ludi guztia inguratu ondoren, bidean iru urte igarota gero, an eldu ziran barriro be len urtendako tokira, 1522'ko Agorraren 6'an.

Izan daiguzan beti gogoan Elkano lako gizonak, euren antzera guk be, biotza sendotu dagigun.

Guziok lan egin bear dogu



Eguzkia agertu da. Errian eta mendian guztiak oetik jagi dira.

Amak bere umetxoak jantzi ta garbitu ditu. Aita bere lanetarako etxetik urten da.

Guztiak, batetik bestera, euren eginkizunetara doaz.

Lantegietan, oletan, saltokietan, langilleak batu dira euren lanari ekiteko.

Argiña, ormak egiten asi da; zurgina, bere zura ta egurrak lantzen; burnigiña, galtzairu ta burdiñak erabiltzen; jostuna, soiñekoak ebagiten; oiñetakogillea, oiñetakoak egiten.

Osagillea be ba-doa bere gaxoak ikustera. Irakaslea, barriz, bere ikasleai irakastera.

Ene utnetxoa: gizon guztiok lan egin bear dogu; batzuk batera eta besteak bestera, batzuk eskuz, besteak buruz.

Lan barik ez dago ez janaririk, ez jantzirik, ez bizi-tokirik, ez pozik, ez atsegiñik.



Guztiok lan egitea Jainkoaren gogoa da.

Izadiaren iru zaliak

Izadi guztia, Jainkoak egiña da.

Arri bati begira egiozu: ez dau zentzunik eta bere tokitik ezin igitu daiteke. Bizirik ez dau. Onen antzeko gauza guztiai Meak deitzen dautsegu.

Begira egiezu orain bedarra, loreai, gariari eta sagar eta madariai. Areik be zentzunik ez dabe ta ezin ibilli daitekez; euren zanez lurrari lotuak dagoz. Baiña azten dira eta bizi dira. Orrei, landarak deitzen dautsegu.

Begira egiozu orain eguzkitan lore batetik bestera margo ederrez jantzita doan mitxirrika, edo adarrik-adar arin ta alai dabillen txori abeslariari. Orreik bestezerbait dira: berez nai daben tokira ibilli daitekez, ba-dakie zer dan atsegiña ta atsekabea. Abereak deritxoe.

Mea guztiai batean, Meadia deritxoe; landara guztiai, Landaredia; eta abereai, Abeldia.

Orreik dira Izadiaren iru zati nagusiak.

Abeldia



Abeliztian ikasten dira abereai dagokiezan gai guztiak.

Abereak era bitakoak dira:

Azurdunak **eta** azurgabeak.

Azurdunak **bost** eratakoak dira:

1—Bulardunak.

2—Egaztiak.

3—Narrastariak.

4—Ur-lurtarrak.

5—Arraiñak.

Azurgabeetan **dagoz:**

1—Armarmak.

2—Zomorroak.

3—Arrak.

4—Eun-oindunak.

5—Otarraiñak.

Gaiñera ba-dira Azurgabeetan Abel-landarak (Zoofi-toak), Soin-berak (Moluskoak) eta Zomortxoak (Mikro-bioak) be.

Abeldia: Bulardunak

Bulardunak aoan ortz-agiñak eta narruan ulea daukie, ta euren umeak esnez azten dabez.

Geienak lau-oindunak dira, ta birikien bidez artzen dabe arnasa. Odol beroa dabe, eta geienak lurgaiñean jaiio, azi, bizi ta ibilten dira.

Batzuk noiznai lurrean eta noiznai uretan bizi izaten dira, eta orrei ur-lurtarrak edo igerilariak deitzen yake.

Bulardunak era askotakoak dira. Ona emen ezagunak:

Tximiñuak dira azkarrenak, eta gizonaren antz geiena dabenak.

Aragizaleak, eta oneitan dagoz Katua, Legoia, Katamotza, Artza, Otsoa ta Txakurra.

Azal-lodidunak, izenak berak diñonez azala lodia dabenak dira. Oneitan dagoz Elepantea, Urzaldia, Txarria edo Urdea ta Basurdea.

Ausnarlariak, oneik lasterka jaten dabe, baiña gero urdalletik barriro aora jandakoa ekarri ta aoan ausnar-tzen dabe. Beia, Aaria, Oriña, Basauntza, Orkatza (Gamuzza), Konkorduna ta Bikonkorduna, ausnarlariak dira.

Legoia zarrez ilien

^Tv

Legoi guziiz aundi bat,
ez-il bai-illean
luze-luze etzunik
egoan lurrean;
urteen zamak eukan
ezin igiturik,
ez bai eban gaixoak
zarra beste miñik.

Orruaz mendiz mendi
zanean lenbizi,
abereak ebiltzan
agandik igesi;
bat bakarrikan ez zan
guztien artean
itxarongo eutsonik
iñolaz bidean.

Orain ikusirikan
etzunik lurrean,
esan dodan legetxe
ez-ii bai-illean,
eta ito nai dabe
gaxoa guztiak.

Zitalen kontua da
gaxoa danari
egin nai izatea
barre eta irri.
Gizon zintzoak ez dau
onela pentsatzen;
gaxoenari dautso
geiena laguntzen.

(Iturriaga'k)

Abeldia: Buiardunak

Jarraipena

Atzazkal batekoak. Oin bakoitzean atzazkal bat baka
rrik dabelako, deritxoe onela. Beiak-eta, bi bai dabez,

Zaldia da era ontakoetan abererijk ederrena. Buru lu-
zea clau; belarriak, zuzen eta txikiak; begiratu, bizia;
lepoa, luzea; eta anak, medarrak. Ulea motza dau, baiña
lepo gaiñean eta buztanean zurda luzeak be izaten ditu.

Astoa eta Mandoa ez dira zaldia baizen ederrak; bai-
ña gizonari laguntza aundiak egiten dautsoez.

Izabereak edo itxasoko abereak uretan bizi izan arren,
noizean bein ur gaiñera urten bear izaten dabe arnasa
artzeko. Orreitan dagoz Balea eta Izurdea.

Balea da gaurko egunean dan abererik aundiena.

Txoarrea eia erbia

Arrano batek eban
erbi bat atzeman,
eta an eukan itoten
bi atzaparretan;
txoarre batek ustez
toki segurutik,
oiu egiten dautso:
—Ez dok esaten ik
ez dala lur gaiñean
aurkitzen mutillik
lasterketan i beste
joan daitekenik?
Orain zetan ago or,
erbitxoa, geldì,

orren mutil ariña
azen ezkeroz i?—

Onela itz egiten
dautson bitartean,
gabirai bat gaiñera
dator bat-batean;
artzen dau txoarrea
aren atzaparrak
eta kenduten dautsoz
irri eta parrak.

Iñok mundu onetan
ez dagike esan
ur onetatikan nik
ez dot bear edan.
Usterik gitxiena
guk dogun orduan
aurkitu oi gerade
besteen lekuan.
Agaitikan bein bere
zorigaiztokoaz
ez dogu egon bear
irriz eta parraz.

(Iturriaga'k)

Abeldia: Bulardunak

Jarraipena

Sabel-sakeldunak deritxoe sabel-aurrean sakel bat dabena. Sakel ortan eroaten ditu amak bere umeak, txikiak diranean. Kanguroa da abere orreitan ezagunena.

Zomorro-jaleak deritxoe, zomorro-janaz batez be, bizi diranai. Eta orreitan dagoz Satorra, Kirikiñoa eta Lur-saguá.

Satorra, lurpean egindako bidetatik, zomorro-billa ibiltzen da. Bere begiak oso txikiak dira, eta bere ulea oso leguna. Kirikiñoa, iñok ikutzen dauanean, bere zurdille gogor zorrotzetan biltzen da

Karraskariak. Onela deritxoe, matraillazur bakoitzean daukiezan agin luze biren bitartez janaria karraskatzen dabena. Oneitan ezagunenak, Sagua, Erbia, Muxarra eta adarretik adar bizkor ibiltzen dan Katagorria dira.

Saguxarra. Askok uste dabe egan ibiltzen dalako Saguxarra egaztia dala. Baiña ez da egaztia; ez bait-dau, ez mokorik, ez lumarik. Saguxarra be bularduna da.

Bere beatz luze artean daukan mintzari eskerrak, egi-ten dau egan.

Gautarra da, eta zomorro kaltegarri asko jaten ditu.

Egazíak

Oneik be azurdunak dira, baiña beste azurdunak ez lez oneik mokoa, lumak, egak eta anka bi dabez.

Abian arrautza egin eta arrautzetatik ateraten ditue umetxoak.

Arrautzeak iru gai ditu: azala, zuringoa eta gorringoa. Gorringoak tanto zuri bat izaten dau, ta axe da umearen azia.

Egaztiak era askotakoak dira. Ona emen ezagunenak:

1) Arrapalariak: Oneitan dagoz Arranoa ta Saia. Aragia jaten dabe.

2) Txoriak: **Enarak, Kirrikillak, Eskillasoak, Txan-txangorriak, Txepetxak eta beste askok, zomorroak jaten dabez.**

3) Oilloantzekoak: **Aleak irusten ditue. Oillo. Eper, Galeper eta onelakoak dira.**

4) Ankaluzeak: **Oillagorrak, Egaberak, eta abar.**

5) Igerilariak: **Ateak.**

Txanixangorria

Udara joan ta egon illunak
ondoren datozenian,
eguzkia ta gure poz danak
ezkutatzen diranian...
zer ari zara orla kantari
ordurik ixilienian,
zer ari zara, Txantxangorria,
ain era kupigarrian?

A, zenbat aldiz ala
jardun txit maitian
zotz baten puntan edo
arantza-tartian
zaudela egon ete naz
an... aldamenian,
neure miñak oroitzen
zure jardunian!

Zure kolore ber-bera daben
osto bakanak lurrian
arboletatik erori eta
soil dauden garai berian,
begiak zabal-zabal jarriarik
antxe bide bazterrian
egoten zara, txori gaixoa,
negarrez udazkenian.

Papar gorri txikia
lertzeko zorian
lumetan bil-bil arro
dadukazunian...
ez dakit nola negar
guztiak batian
kabitzen diran zure
kolko politian!

(E. Arrese'k)

Narrasiariak

Orreik be era askotakoak dira. Ezagunenak, Muskerak, Sugelindarak, Txaberamak eta Sugeak.

Sugetan asko oso gaiztoak dira. Olakoen ozkak edo usikadak gizon ta abereak bereala ilten ditu.

Txantxikuak, Igelak, Arrobioak dagoz orreitan.

Arraiñak

Arrain guztiak uretan bizi izaten dira.

Ezagunenak Amorraña, Lebatza, Izokia, Aingira, Txardiña, Txitxardiñak, Makalloa eta beste asko dira.

Euren azur medar ta luzeai arantzak deitzen dautsegu.

Arranoa eía azeria



Arranoak bere umetxoai jaten emoteko, azeri batr ostu eutsozan bereak.

Joan yakon azeria bereala umeen eske, baiña arranoak, bere burua indartsuago uste izan nunbait, eta azeriaren eskabideai barre egin eutsen.

Azeriak orduan, asarraturik, arranoa egoan zugatz edo arbolaren azpian su aundi bat biztu eban. Bereala garrak eta kea arrano aren abiraiño eldu ziran. Eta onek

bere umetxoak ito egingo zirala ikusi ebanean, azeriari bereak biurtu eutsozan sua itzali egian.

Ez yake bada gu baiño txikiagoai kalterik egin bear, eurak be guri kalte egiteko bidea artu legikie-ta.

Abere azurbakoak

Bere izenak diñon lez, abere orreik ez dabe ez azurrik ta ezta odol gorriarik be. Abere orreik guztiak, anak dabez oso ugari, batzuk geiago eta besteak gitxiago.

Bost eratakoak dira:

1.—Armiarماك. Oneik egorik ez dabe eta zortzi anken gaiñean ibiltan dira,

2.—Zomorroak. Oneik era askotakoak dira, baiña guztiak sei anka dabez. Oneitan ezagunenetaikoak Eulia, Erlea, Amonamantalgorria, Kilkerra, Eltxoa, Akaña eta Listorra dira.

3.—Arrak. Onein soiña biguna da, oiñik ez dabe. Ezagunenak Lur-arra ta Izaia dira.

4.—Eun-oindunak. Izen ori ez dabe eun oin dituelako, asko dituelako baiño, eunera eldu barik. Geienetan berrogei dituez.

5.—Otarraiñak. Azurbako abere oneik ur azpian arnas artu dagikee. Oneitan ezagunenak Otarraña, Misera ta Zangurrua dira.

&bel-landarak

Abere oneik landara batzuen antza dabe *euren* adarretan, eta abel-landarak deitzen yake.

Ezagunenak Korala, Belakia (Esponja) eta Itxasoko Izarra dira.

Guztiak itxasoko uretan bizi izaten dira.

Soin-berak

Onein soiña edo gorputza oso biguna izaten da, ta geienak azal gogor batean bilduak bizi dira.

Ispel edo Ostrak, Barekurkuilluak (karakolak), Ba-reak eta Olagarro edo Amarratzak soin-berak dira.

Zomoríxoak (microbioak)

Zomorro txiki batzuk dira oneik. Txikikuskiñaz (Mikroskopioaz) ez ba'da, ez dira ikusten.

Gaitz ikaragarri asko zomortxo oneik sortuak dira.

Landaredia

/

Landarak bizi, azi ta ilten dira, baiña ezin euren tokitik igitu edo mobidu daitezke. Zentzunik be ez dabe.

Iru eratakoak dira: Zugatzak, zugazñoak eta bedarrak.

Landara baten zatiak oneik dira: zanak, enborra, os-toak, lorak eta igaliak (frutuak).

Zanak batzen dabe lurpean landarearentzako janaria. Janari oni izerdia deritxo, eta mamin ta azalartean gora adanetaraiño igoten da.

Enborraren zatiak biotza, mamiña ta azala dira.

Ostoen bidez landareak, aizean dagozan gai batzuk be batzen ditu. Ta orixe da landarearentzat arnasa artzea.

Lora baten zatiak, batez be, ontzia, orritxoak, ariak eta autsa dira.

Igaliak barrenean aziak ditu.

Landara batzuk loragabeak izaten dira, eta oneitan dagoz zizak eta oroldia.

Azeria eia maísak

Zintzilika daudela
ditu azeriak
ikusten mats-mordoak
eldu ori-oriak;
jarten da begiraka
gaixoa goseak;
barrena ibiltzen yako
jateko zaleak.
Saltoka asiten da
alegin guztian;
ordu bian ba-dabil
ezin iritxian.


Ikusi dabenean
ez dauala artzerik,
matsai esaten dautse
begiak jasorik:
—Zaute, zaute mordoak,
zaute ostoan;
ez zarie oraindik
jarri sasoiean.

Zerbait nai eta ezin
ba'dogu iritxi,

azeriak bezela
bear **dogu** itxi
—Zaude, zaude, esanaz,
zaude or berean;
oraindikan **ez** zara
jarri sasoiean.

(Iturriaga'k)

Meadia



Meak (Mineralak) bizirik ez dabe, ez dira azten, eta berez beti toki batean egoten dira.

Gaurko egunean ezagutzen diran meak bosteunen bat dira.

Ezagunenak lau zatitan batu daitezke:

1—Arriak

2—Menastak (Metalak)

3—Gatzak

4—Errekaiak

Arrietan daukaguz Karearria, Igeltsoarria, Auntzarria, Arbela, Suarria eta beste asko.

Menastetan daukaguz Burdiña, Beruna, Urrea, Zidarra, Zidarbizia, Burdingorria...

Gatzak era bitakoak dira: Gatzarria eta Itxasgatza.

Errekaietan dagoz Arrikatza, Arriorioa, Ikatz-lugarra (Antrazita)...

Nekazarilza

Nekazaritzaren bidez lurrak landu eta uzta eder eta ugariak batzen dira.

Azi txiki batek ale asko emoten ditu, lurrak bear lez ongarritu ta lantzen ba'dira.

Golde, atxur, bostortz eta gaiñerakoaz iraultzen dira lurrak lenengo, eta gero azia erein.

Sega ta itaiaz egiten da moztuketa.

Gari, olo, arto, artatxiki eta garagarra; indaba, aza, arbi, baratxuri, mats, idar ta gaiñerakoak aberastasun aundiak ekarri dagikeez lurra ondo lantzen dabenai.

Ekinlza

Ekintza-itzak ola eta lantegietan gizonak egindako lanak adierazten dauskuz.

Era askotakoak dira lan oneik. Millaka gauza egin ta sortu ditu gizonaren buru argiak.

Ekintzaren biotza indarra da. Indarra bear da aínbeste ta aínbeste tramankulu edo inakiña igitzeko.

Arrikatza erreaz ur-lurrinak emoten dauskun indarra asko erabilten ba'da be, gaurko egunean geiena zabaltzen asi dana tximist-indarra da.

Tximistindar-oletatik urruneko lantegi guztietara, ari batzuen bidez, zabaltzen da indarra.

Or nunai mendi guztietan ikusiko dituzue ari orreik. Baiña ez ikutu. Ikutu ezkerro ilgo zarie-ta.

Arrigarria da gizonak, nai lez, orrelako indar aundiak noranai eroatea!

Saleroskela

Ez da naikoa gauzak eta gaiak egitea. Egiten dituenak besteri saldu egin bear; eta bear dituanak erosi.

Ortik etorri da salerosketa.

Len gauza batzuk beste gauzaz ordaintzen ziran.

Baiña gero dirua sortu zan, eta orain diruz ordaintzen dira gauzak.

Gizonak sortu zituan neurriak be, saltzeko gauzetan okerrik izan ez edin.


Onela daukaguz luzerarako:

Neurkia, (metroa) eta bere aundiago ta txikiagoak.

Astuntasunerako:

Aztaki (kilo) eta beré aundiago ta txikiagoak.

Zelan ibilíen garean



Gizona, berez, oin bigaz ibiltzen da. Baiña lasterrago ibilli naiean, aspalditik ibilli izan da astoz eta zaldiz be.


Gurpilla ta burdia be aspaldi sortuak ditu.

Baiña gero ta lasterrago ibilli nairik azkenengo urteetan **tan** Bultzi edo Trena asmau dau. Bai aurrerapen aundiak ekarri dautsozala gizonari asmaketa eder orrekí

Gaurko egunetan oraindik aurrerago joanda, barriz, Gurtariña edo automobilla eta Egazkin edo Aeroplanoa asmau ditu.

Gurtariñak laguntza aundiak ekarri dauskuz; eta Egazkiñak, egan, txorien antzera ibilteko bidea emon dausku.

Itxasorako be gauza arrigarri bi sortu ditu: Urpejantzia eta Urpeontzia. Lenengoaren bidez gizon bat urpean ibilli daiteke, ta lanean jardun be bai, aldí luzean. Eta bigarrenaren bidez ontzi osoa ibilli daiteke, bere gizon ta guzti, ordu osoetan urpean.



Eta urgaiñean, lenengo ontzi txikietatik ia erria aiñako ontzizarretaraiño eldu cla. Gaurko egunean Ameriketa'ra be oso egun gitxitan, aste bete baiño len, joan daiteke.

Besíe aurrerapenak

Egunetik egunera gizonak aurrerapen barriak asmetan diardu.

Txikikuskiñaren bidez, begi utsez ikusi ezin daitekezan xomorro txiki-txikiak, garbi-garbi agertzen yakuz.

Ainbeste zabaldu dan eta ainbeste erabilten dan Argazkintza edo Fotografia, dirudienez, euskaldun batek, Dagerre'k sortua da.

Urrutidazkiaren bidez guregandik oso urrun dagozan tokietara une berean idazkiak bialdu leitekez.

Urrutizkiña oraindik be arrigarriagoa da: gure itzotsa, ari batzuen bidez, oso urrunera eroaten dau.

Baiña gaurko eguneko aurrerapenik aundiena Aribako Urrutizkiña da. Onen bidez urrutiko errietatik itz egiten yakun guztia, naiz abesti, naiz itzaldi, naiz eresbatz, naiz beste edozein ots, etxetik bertatik entzun gengike, bien bitartean ari bat be ez izan arren. Gauza arrigarria!

Eta azken urteotako Urruti-ikuskiña? Onen bitartez, urruneko otsak ez entzun bakarrik, baita iduriak ikusi be egiten doguz.

Kirolak



Euskaldun batentzat kirolik edo jolasik ederrena pelota-kirola da. Era askotara jokatu daiteke pelotan: eskuz, xarez, saskiz, palaz, luzeran, errebotean, irristadan (erre-montean)...

Euskaldun guztiok jolas au, oso maite bear genduke: gure-gurea ta eder-ederra bait-da benetan.

Baiña beste kirol asko be ba-dira, eta ezagutuenetaiko bat ostiko-jolasa da. Amaika mutillek beste amaikaren aurka jokatzen dabe. Amaika oneitatik bost dira aurre-lariak, iru erdikoak, bi atzelariak eta bat atezaiña.

Beste jolas atsegingarri bat, mendi goituetara igotea da. Soiña asko sendotzen da ibilketa oneik egiñaz. Mendi-goizale izan zaiteze, bada.

Beste kirol askoren artean lasterkariak, igerilariak eta abar be ba-dira.

Ederliak

Gizona, berez, ederzale da. Jainkoak emona dau gogo ori.

Aspaldi-aspalditik orrelaxe agertu dau, eta Ejípto'n, Gerkerria'n eta Italia'n, batez be, antxiñako gauza eder arrigarri asko ikusi daitezke oraindik.

Margoertiak (Pinturak), Arriantzertiak (Eskulturak), Elertiak (Literaturak), Iratertiak (Arkitekturak) eta Eresertiak (Musikak), batez be, gizonaren biotzak Ontasuna, Egia eta Edertasuna beti maite izan dituela garbi agertzen dauskue.

Eusko-eresiak

Ez da izango ludi guztian euskalduna baizen eres-zalerik.

Jaio baizen laster bere ama asiko yako abesti gozoen bat abesten:

Aurra egizu lotxo bat
emongo dautzut gozo bat:
aitak bat eta amak bi...
zeruko Jaunak amabi.

Umea azi da (diño Donosti Aba ereslari euskaldun ospetsuak); zortzi urte ditu; bere kidekoakin inguruan »s-
kuetatik batuta abesten dau:

Makilla or eldu da
txakurra jotera:
txakurrak otsoa,
otsoak akerra,
akerrak artoa,
akerra ken!
Gure artotik
akerra ken,
arren!

Edo bestela ustaian, eskutatik elduta, nai neska nai
mutillak, bizi-bizi, abestuko dabe:

Euskalerri'ko mendiak

Batek: Ori-mendi
tontorreko
pagoaren
puntan,
Guztiok: puntaren puntan,

Batek: Ori'ko txoria kantari:
Biek: ...txiru-liru-li
txiru-liru-li...
Guztiok: Nok kantatuko ete dau
soiñutxu ori?

II

Batek: Aizkorri'ko
tontorreko
arantzaren puntan,
Guztiok: puntaren puntan,
Batek: erbi-iñudea dantzari:
Biek: ...triki-triki-ti
triki-triki-ti...
Guztiok: Nok dantzatuko ete dau
dantza arin ori?

III

Batek: Anboto'ko
tontorreko
arkaitzaren
puntan,
Guztiok: puntaren
puntan,
Batek: sorgiñak kontu-kontari:
Biek: ...uju-juju-ju

IJI-IJI-IJI...

Guztiok: Nok ixillaziko ete dau
algara ori?

IV

Batek: **Aralar'ko**
 tontorreko
 Larrunarri-
 puntan,
Guztiok: **puntaren**
 puntan,
Batek: **Pernando ta beñtsolari:**
Biek: **...zuk niri ziri**
 nik zurí ziri...
Guztiok: **Iñok onduko ete dau**
 ziriket'ori?

**Nok ipiñi dagikez emen gure abestien edertasun guz-
tiak? Ezin.**

**Ene ume maiteak: ilcasi egizuez euskel abestiak. Areik
dira zuen biotzaren samintasunak, zuen pozak, zuen atse-
giñak ondoen azaltzen dabezanak.**

**Ene umetxoak! Idaztitxo ontan ikasi dituzuen gauza
onak gogoan artu egizuez, eta ez dagizuezala bein be aztu
jakintzak eta Zintzotasunak batez be, emoten dautsoela
gizonari izenik onena.**

AZKENA

NUN ZER

Jaungoikoa	3	Beste langintzak	30
Xabiertxo	4	Menastak	31
Iziartxo	5	Mendiak	31
Garbitasuna	6	Abendak	35
Ikastolara	6	Azia	33
Ikastolako atean	7	Zugatza	34
Irakurtea bearra da	7	Abiak	35
Gizabidea	8	Elaia	36
Gizona	9	Ume errukitsua	36
Giza-soña	9	Artzaiña eta ardiak	37
Soin-enborra	10	Ura	39
Soin-adarrak	11	Uraren bearra	39
Ikusmena	11	Txakurra eta aragi-puska	40
Entzumena	12	Ura zelako eratan agertzen ya-	
Usainmena	13	-im	41
Gozamena	14	Egaztiak	42
Ikumena	15	Esaera zarrak	43
Gogoa	16	Urrezko arrautzak egiten zi-	
Jantzia	17	tuan oilioa	43
Janariak	18	Arraiiak	44
Ogia	19	Etxeko abere ta piztiak	45
Ogirik ez da bein be bota bear.	19	Lagunak	46
Edariak	20	Aita nolako, seme alako	47
Iziartxo'k biotz ona dau	20	Zelako aldea	48
Esaera zarrak	21	Erleak	49
Erregea ta tximiñoak	22	GoJde biak	49
Etxea	23	Mutil zinlzoa	50
Kun-Kun	24	Ez da asarratu bear	51
Erria	25	Abereen garrasi ta otsak	51
Baserria	26	Adizkide bi eta artza	52
Nere etxea	26	Lorea	54
Argia	27	Txoi gaixoa	65
Argiña ta zurgiña	28	Mutil ona eta mutil gaiztoa.	55
Alaitasuna	39	Sugea eta nekazaria	66
Langintzak	J9	Batuketa	58

Kenduketa	59	Alkartasuna indarra da	102
Ludia	59	Lantegi eta olak	108
Udabarria	60	Sumendiak	104
Basoa	62	Idazketa	105
Uda	62	Idaztia	106
Egun-sentiko pozak	64	Ludiaren zatiak	101
Igeri egite	65	Elkano	109
Udazkena	66	Guztiok lan egin bear dogu ...	110
Labore-batzea	67	Izadiaren iru zatiak	112
Negua	68	Abeldia	113
Eguzkia	70	Abeldia: Bulardunak	114
Egunsentia	71	Legoia zarrez ilten	115
Gizonaren bizia	72	Abeldia: Bulardunak	117
Iilunabarra	73	Txoarrea eta erbia	113
Ortzea edo zerua	74	Abeldia: Bulardunak	120
IJlarga	76	Egaztiak	121
Zugatzi ez kalterik egin	77	Txantxangorria	122
Eguraidi ona	78	Narrastariak	123
Eguraldi txarra	79	Ur-lurtarrak	123
Ekaitza	80	Arraiñak	124
Errekaiak	81	Arranoa eta azeria	124
Burdiñea	82	Abere azurbakoak	125
Aizkora efa kirtena	83	Abel-landarak	126
Garia	85	Soin-berak	126
Aizea	86	Zomortxoak (microbioak)	126
Edurra	87	Landaredia	127
Izotza	88	Azeria eta matsak	128
Itxasoa	89	Meadia	129
Arrokeriaren ondorena	90	Nekazaritza	130
Txitxarra efa txiñurria	91	Ekintza	131
Ondartzan	95	Salerosketa	131
Astuntasuna	97	Zelan ibiltzen garean	132
Belea eta sugea	98	Beste aurrerapenak	134
Izkuntzak	98	Kirolak	135
Euskalerrria	99	Edertiak	136
Euskalerrriaren edertasuna	100	Eusko-eresiak	136
Euskal-eresia	101	Euskalerrri'ko mendiak	137